



Sinodoa
2021
2023

Sinodo-erako elizaren alde
elkartasuna | partaidetza | misioa

Etapa Kontinental

Lan Fitxa



Donostiako
Elizbarrutia
Diócesis de
San Sebastián

KOMISIOAREN ESKUTITZA

Lagun maiteak:

Bidean jarraitzen dugu. Sinodoan jarraitzen dugu.

Sinodoaren Fase Kontinentalean gaude jada, 2022ko irailetik 2023ko martxora bitartean, eta eskualdeko eta kontinenteko batzarrak egingo dira fase horretan. Iragan urriaren 27an aurkeztu zen, Erroman, Documento de Trabajo para la Etapa Continental (DEC) dokumentua, Ensancha el espacio de tu tienda (Is 54, 2) izenburua duena. (Honekin batera doakizue dokumentua. Sinodoaren webgune ofizialean ere deskarga dezakezue:

<https://www.synod.va/en/highlights/working-document-for-the-continental-stage.html>).

Joan den azaroaren 17an, Espainiako Gotzainen Batzarrak (CEE) Sinodoko elizbarrutiko batzordeetako ordezkariak bildu zituen, Dokumentua eta elizbarrutirako proposamena aurkezteko. Proposamen hori material honen bidez helarazten dizuegu.

Fase Kontinentalak berriro eskatzen digu elkarri entzutea eta Espirituari entzutea, bai eta komunitatean otoitz giroan eztabaidatzea ere, hiru galderetatik abiatuta. Horrela, Ebanjelioa iragartzeko bidea elkarrekin egitea ahalbidetuko digun misiolari bihurtze bat bizitzen jarraitzera gonbidatzen gaituzte.

Zehatzago esanda, dokumentua irakurtzean eta talde sinodaletan berriro biltzean datza lan-proposamena, dokumentuaren 106. zenbakian agertzen diren hiru galderei erantzuteko. Talde bakoitzaren erantzunak Sinodoa koordinatu eta sustatzeko Elizbarrutiko Batzordera bidaliko dira, 2023ko urtarrilaren 12a baino lehen. Ekarpen horiekin Elizbarrutiko Batzordeak laburpen bat egingo du eta EEera bidaliko du, urtarrilaren 21a baino lehen.

Badakigu ez zaigula denbora asko eman lan hau egiteko, baina ahalegin bat egitera eta bertan parte hartzera animatzen zaituztegu. Are gehiago, garrantzitsutzat jotzen dugu dokumentua lantzea eta 106. zenbakian adierazitako hiru galderei erantzutea, baita zuen erantzunak epez kanpo bidaltzen badizkiguzue ere. Izan ere, Elizbarrutiko Batzorde gisa, zuen ekarpena entzun nahi dugu, Elizbarrutian bidea elkarrekin hobeto egin ahal izateko.

Bide batez, 2023ko urtarrilaren 14an, larunbatean, Elizbarrutiaren Seminarioan (Heriz pasealekua, 82, Donostia) egingo den hurrengo Elizbarrutiko Topaketa Sinodalerako deia egiten dizuegu.

Agur bero bat,

Sinodoa koordinatu eta sustatzeko elizbarrutiko batzordea
ebanjelizazioa@elizagipuzkoa.org
943 28 50 00

LAN FITXA

Proposamena

Fase Kontinentalerako Lan Dokumentua.

«Ensancha el espacio de tu tienda» (Is 54, 2)

Talde-bilera bat egitea proposatzen dizuegu. Aldez aurretik, pertsona bakoitzak berak irakurri behar du dokumentua, eta 106. zenbakiko galderei erantzun behar die.

1. GOGOA ETA BIHOTZA ESPIRITUAREN EKINTZARA ZABALTZEKO PREST GAUDE

**Jainko Aitaren,
Semeren eta
Espirituaren aurrean
jarrita hasiko dugu
bilera.**

**Elkarrekin: Aitaren,
Semearen eta Espiritu
Santuaren izenean.
Amen.**

**Dokumentuaren (DEC)
25. eta 27. zenbakiak
ozen irakurriko dira.
Isilune labur bat
egingo da.**

Espiritu Santuaren laguntza eskatuko dugu, **elkarrekin otoitz eginez:**

Jauna, Sinodoan bildu duzu zure Herri osoa.

Eskerrak ematen dizkizugu

bidean jartzea erabaki dutenek bizitako pozagatik,

urte honetan Jainkoari eta anai-arrebei

abegiz, apaltasunez, eta anaitasunezko jarrerarekin

entzun ondoren.

Laguniezaguzu orrialde hauetan "lur sakratuan" bezala barneratzen.

Zatoz, Espiritu Santu: Gida gaitzazu elkarrekin egingo dugun bidean!

2. GALDEREN ERANTZUNAK PARTEKATUKO DITUGU

105. eta 106. zenbakiak irakurriko ditugu, kokatzeko. Gero, hiru galderei erantzun diegu. Komeni da norbaitek oharrak hartzea, ondoren taldekideek partekatutakoaren laburpena egiteko.

1. Galdera

«DEC otoitz giroan irakurri ondoren,

zein intuizio entzuten dira gehien Elizak kontinentean dituen esperientzia eta errealitate zehatzekin? Zer esperientziak dirudite berriak edo argitzaileak?»

2. Galdera

«DEC irakurri ondoren eta otoitzean aritu ondoren,

zein tentsio edo desadostasun nagusi sortzen dira, bereziki garrantzitsuak, kontinentearen ikuspegitik? Ondorioz, zeintzuk dira prozesuaren hurrengo faseetan aztertu eta aintzat hartu beharko liratekeen gaiak eta galderak?»

3. Galdera

«Aurreko bi galderetatik sortzen denari begiratuta,

zeintzuk dira mundu osoko tokiko beste elizekin partekatu eta 2023ko urrian Sinodorako Batzarraren Lehen Bilkuran eztabaidatu daitezkeen lehentasunak, gai errepikariak eta ekintzarako deiak?»

3. TALDEAREN LABURPENA IDAZTEKO ETA BIDALTZEKO JARRAIBIDEAK

- Laburpenak bi orri izango ditu gehienez (folioaren bi aldeak). Lehenengo eta bigarren galdera orri batean erantzun behar dira (folioaren alde bat), eta hirugarren galderak orri bat izango du gehienez (folioaren alde bat).
- Laburpena bidaltzeko epea (EEEra bidaliko den Elizbarrutiaren sintesiarako kontuan hartzea nahi bada) 2023ko urtarrilaren 12ra arte izango da.
- Laburpena helbide elektroniko honetara bidali Proposamena ko da:
ebanjelizazioa@elizagipuzkoa.org



Por una Iglesia sinodal
comunidad | participación | misión